

## **Ipuin kontalarien saioak izango dira Gernikako bibliotekan, hilean behin**

Gernikako bibliotekako arduradunek Gabonetara arte zentroan garatuko diran ekintzen programazioa antolatu dabe eta egitarauaren zati handi bat ipuin kontalarien saioakaz osotuko da. Agerraldiak hilean behin errepikatuko dira. "Hilaren azken barikuetarako iragarriko doguz, hemendik eta azarora arte", aurreratu dabe Gernikako bibliotekako iturriek.

Udari begira, bestalde, liburutegia kalera atarako dabe, beste urte batez. Irakurle zaleek beraz, Kultur Etxeko aterpean aurkituko dabe hemeroteka kontsultatu eta liburuak eta bideoak maileguan eskatzeko lekua. Udan be bai, 'Gazteon liburutegia' kanpainaren barruan, 'Gau baltza' burutuko da. "Eztabaida, beldurrezko filma eta ikarazko ipuin kontaketaz gainera, komiki digitala eta liburu baten oinarritutako trailerra grabatuko dogu", esan dabe. Irailean, 'Munduko paisaiak' ekimena abiatuko da eta azaroan eta abenduan, 'Kontu Lekua' zabalduko da, guraso eta haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko.